

JANTOKI INKESTA:

INFORMAZIOA ETA ONDORIOAK

OTSAILAK 2023

BIGE GURASOEN ELKARTEA

bige 

Bizkaiko guraso
elkartea

JANTOKI INKESTA: INFORMAZIOA ETA ONDORIOAK

SARRERA

Joan den ikasturtearen amaieratik eta ikasturte honen hasierara ezin konta ahala dei, kontsulta eta kexa jaso dira eskola-jantokiaren inguruan federazioan, kasu askotan familien bitartez zuzenean edo guraso-elkarteen bidez. Kexa horiek, bereziki, menuen kalitateari eta kantitateari buruzkoak dira.

Iritzi horiek berresteko asmoz, IGEEi zuzendutako inkesta bat egin dugu; izan ere, IGEEK etengabe daude harremanetan familiekin eta ikastetxeetako zuzendaritza-taldeekin.



Inkestaren helburua honako hau izan da:

- Eskola-jantokien egoera ezagutzea, batez ere, menuen kalitateari eta kantitateari dagokienez.
- Familien kexak edo kezak Administrazioari eta zerbitzua ematen duten enpresei helarazten zaizkien eta arduradunek kexa horiei erantzuten dieten jakitea.

Galdetegia sinplea da, erantzun errazak eta azkarrak ematen ditu, baina familien kezka nagusiak agerian uzten ditu eta, beraz, eskola-jantokien egoerari buruzko ikuspegi orokorra ematen du inkestak.

Inkesta posta elektronikoaren bidez bidali zaie BIGEn federatutako guraso-elkarteei, eta 2 aste eman ditu zabalik.

JANTOKI INKESTA: INFORMAZIOA ETA ONDORIOAK

Galdetegia bete duten pertsonen IGEaren izena eta dagokion ikastetxea adierazi behar izan dituzte. Honako galdera hauek egin dira:

- Jantokia kudeatzen duen enpresaren izena
- Jantoki mota: *in situ*, catering, beste bat
- Jantoki-zerbitzuarekin kexarik edo gorabeherarik izan al duzue?
 - Menu aldaketa
 - Kantitate gutxi
 - Kalitate eskasa
 - Fruta gutxi
 - Ez dute errepikatzen uzten
 - Ez dute aldaketarik jakinarazten
 - Arrain gutxi
 - Besterik
- Badakizue gorabeherak enpresari eta Administrazioari jakinarazten ari zaizkien?
- Erantzunik izan duzue? Norena?
- Familiek zuengana jo al dute?
- Zerbait gehiago kontatu nahi diguzue? Zerk kezkatzen zaituzte?

JASOTAKO ERANTZUNAK

Guztira 96 erantzun jaso ditugu, horrela banatutakoak:

- 75 IGE, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetakoak
- Bigarren Hezkuntzako/Batxilergoko 14 IGE
- Ikastetxe integraletako 4 IGE
- 3 IGE, non jantokiak lehen eta bigarren hezkuntzarako zerbitzua ematen duen



Eskola jangela mota

- Catering: 63
- *In situ*: 30
- Mistoa: 3 (ikastetxean sukalde *in situ* eta catering dago etaparen arabera)

Enpresak

- Ausolan taldea: 14
- Gasca: 24
- Eurest / Scolarest: 31
- Tamar: 22
- IGEak kudeatuta: 2
- Ez dakite: 3

JANTOKI INKESTA: INFORMAZIOA ETA ONDORIOAK

Jantoki-zerbitzuarekin kexarik edo gorabeherarik izan al duzue?

83 elkartek aitortu dute jantokiko zerbitzuarekin **gorabeherak eta/edo kexak** izan dituztela, guztiak janariarekin lotuta.

50 elkartek uste dute **kalitatea eskasa** dela, hau da, elkarteen % 60'2k.

- Kalitate eskasa, arrain gutxi
- Arrainaren eta haragiaren kalitate eskasa; batzuetan, arrainaren zati bat alferrik galdu behar da egosteko moduagatik (itsatsi eta hondatu egiten da). Fruta egoera txarrean iristen da. Haurrentzat eta, bereziki, 5 urtetik beherakoentzat osasungarriak eta egokiak ez diren elikagaiak sartzen dira (saltxitxak, ketchupak, etab.). Fruta gutxi menuan.

53 elkartek adierazi dute beren seme-alabek menuan jasotzen dituzten **kopuruak ez direla nahikoak**.

27 elkartek egiaztatu dute jantokietan **ezin dela** horrelakorik **errepikatu**, bidaltzen diren razioak ez baitira nahikoak.

Beste aldarrikapen bat ere helarazi digute: **etengabeko aldaketak, justifikaziorik gabeko aldaketak menuetan** (gogora dezagun hezkuntza-administrazioak onartu behar dituela menuetako aldaketak, kontratazio-pleguetan adierazten den bezala). 35 elkartek egiaztatu digutenez, kasu askotan aldaketak izan dira menuetan, **aldez aurretik jakinarazi gabe**.

Arrainaren presentziari dagokionez, elkarteek ere kezka agertu dute, batez ere hilerok eskaintzen den kantitate txikiagatik eta kalitate eskasagatik. Izan ere, **25 elkartek arrainen eskasia** dute ardatz. Gainera, esan digute menu-aldaketek, oro har, arrainaren presentzia planifikatuta dagoen egunari eragiten diotela. Atentzioa ematen du, zenbait kasutan, arantzen aipamenak, haurren menuarekin kezkatuta baitaude. Gogoratu behar da kontratazio-pleguetan gai hau aipatzen dela: "Arreta berezia jarri behar da arrain-motak eta arantzarik gabeko sukaldaritza-prestakinak emateko".



Frutari dagokionez, hainbat elkartek eskaintzen den **fruta barietate urria** helarazten digute, sagar eta mandarinetara mugatua. Ez da sasoiko beste frutarik eskaintzen, eta **esneki azukredunak** barne hartzen dira.

"Fruta batzuetan oso berde dator, eta ezin da jan eta ez dago postre alternatibarik."

"Sagarra eta laranja besterik ez dago. Hilean behin bakarrik eskaintzen da banana."

Iritzi hau elkarte batetik helarazi da, eta orokortutako sentimendua islatzen du:

"Jantokiko menuari dagokionez, eta zerbitzu horrek beti izan duen barietate eta kalitate eskasa aipatu ostean, azken denboraldi honetan okerrera egin duela aipatu nahi dugu: kalitate eskaseko elikagaiak, arrain izoztuak, menu-aldaketak (betiere kostuak merkatzeke), fruta ez oso askotarikoak, kantitate urriak, etab."

JANTOKI INKESTA: INFORMAZIOA ETA ONDORIOAK

Soilik 13 guraso-elkartek aitortu dute ez dutela gorabeherarik izan inkestan sartzen diren ataletako batean ere. Zentroetako batean IGEak berak kudeatzen du jantokia. Hiru kasu langileekin lotutako gorabeherari buruzkoak dira, hala nola ordezkapen faltari eta ratioei buruzkoak, baita jantokiko arduradunarentzako denbora faltari eta begiraleen prestakuntza faltari buruzkoak ere.

Ba al dakizue gorabeherak enpreseei eta Administrazioari jakinarazten zaizkien?

42 elkartek, hau da, **% 48,78k**, aitortu dute, ikastetxearen bidez edo haiek zuzenean, **gorabeherak eta kexak helarazi dizkiotela administrazioari eta/edo catering-enpresei.**

"2021ean, IGEak zuzenean hitz egin zuen enpresako arduradunarekin, eta ez genuen erantzunik jaso, urkilara egokitzen zirela alde batera utzita. Ikasturte honetan ere ikastetxearen bidez jakinarazi zaie, eta egoera ez zekiela adierazi dute (une horretan bertaratu zen ordezkaria)."

41 elkartek ez dakite kexarik edo gorabeherarik aurkeztu den ikastetxearen bitartez.



Erantzunik jaso duzue? Norena?

26 elkartek baino ez dute **adierazi aurkeztutako kexa edo gorabeherari erantzuna** eman zaiela.

Gehienetan, catering-enpresak ematen dio erantzuna gorabeherari. Deigarria da Sailaren aldetik jasotako erantzuna "Horrekin gaude" besterik ez izatea kasu guztietan.

Enpresek emandako erantzunei dagokienez, azpimarratzekoa da "aurrekonturik eza eta prezioen igoera" aipatzen dituztela.

Laburbilduz, esan dezakegu **enpresek eta Hezkuntza Sailak ezagutzen dituztela eskola-jantokien egoera** eta ikastetxeen eta familien kexak, **baina ez dute neurririk hartu** horiek konpontzeko.

Gogora dezagun araudiak, catering-enpresek beren gain hartzen dituzten konpromisoen artean, ikastetxeko zuzendaritzak edo hark eskuordetzen dituen pertsonen aurrez zehaztutako komunikazio-bideen bidez jakinarazten dizkioten gorabeherak ahalik eta lasterren konpontzea aurreikusten duela. (Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen zirkularra, eskola-jantokien funtzionamenduari buruzkoa, 21-22 ikasturtetik aurrera).

Araudi horretan bertan jasotzen denez, jantokiko arduradunaren eskumenen artean dago: "Gorabeheren kudeaketa errazteko eta arintzeko, 2018-2019 ikasturtean garapen informatiko berri bat jarri zen ikastetxeen eskura, gorabeherak modu zentralizatuan izapidetzeko aukera ematen duena. Lurralde-ordezkartzek, Zerbitzu Zentralek, laguntza teknikoak, ikastetxeek eta zerbitzua adjudikatu zaien enpresek dute horretarako sarbidea.."

Argi dago, elkarteen erantzunak aztertu ondoren, **araudia ez dela betetzen.**

JANTOKI INKESTA: INFORMAZIOA ETA ONDORIOAK

Familiak zuengana jo al dute?

48 elkartek baieztatzen digute familiak zuzenean jo dutela haiengana, eskola-jantokiari buruzko kezka eta kexak azaltzeko.

Zerbait gehiago kontatu nahi diguzue? Zerk kezkatzen zaitu jantokiaz?

Emandako erantzunen bidez, argi eta garbi esan dezakegu familien kezka nagusia menuen kalitatea eta kopuruak direla.

Hona hemen adibide batzuk:

“Bazkarian kalitate baxua eta kantitate txikiegiak onartezinak dira. Menu beganoa hobetu behar da, bi lehen plater ematea ez da menu begano bat. Ratioak jeitsi behar dira, jantokiko patioa dinamizatu umeen artean gatazkak ez sortzeko. Badakigu familiak orokorrean ez dauzela gustora deko gun zerbitzuarekin.... Janaria gero eta okerragoa izan omen da eta umeak ez daude gustora. Familiaren bat enpresarekin kontaktuan jarri da bere iradokizunak emateko, baina ez du erantzunik jaso.”

“Kantitatea oso justoa izaten da, eta sarritan bigarren aldiz platerkada bat jateko aukerarik ez dago. Aste honetako oilasko paparra transparentea zen guztiz! Ikaragarria! Argazkiak dauzkagu erakusteko moduan. Arrainak hezurrez beteak egoten dira eta haurrentzako ez da batere erraza izaten kentzea. Horrela arraina jateko ohitura bultzatu / erraztu beharrean, haurrek aukera hori errefusatzeko dute. Frutari dagokionez, azken hilabeteetan ez da platanorik egon, sagarrak eta mandarinak soilik, eta noizean behin madari gogorren bat!! Jogur naturalik ez da sekula aukeran egoten... etabar.”

“Kezkatzen gaitu gure seme-alabak jantokitik gosez irteteak, eta ez jantoki txarrak direlako (kasu batzuk egongo dira), baizik eta razioak ez direlako dagozkienak. Gainera, kasu batzuetan xerra bana bidaltzen da eta kasu horietan xerrak ez dira gramajera iristen. Aurten, ikasturte hasieratik errepikatzen ari da kexa hori, beste urte batzuetan baino askoz gehiago ematen da kexa hau.”

“Aldaketek kezkatzen gaituzte, txahala edo arraina kentzen duten ustezko menu jasagarriak ezkutatu. Kalitatea eskasa da. Hori guztia menuaren kostua merkatzeagatik, lizitazioa 2015etik geldirik dagoelako. Kostuen igoera gorabehera, prezio berberekin jarraitzen dute? Kezkatuta gaude prezioen igoera dela eta, gure seme-alaben janariaren kantitateak eta kalitatea jaisten ari direlako.”

JANTOKI INKESTA: INFORMAZIOA ETA ONDORIOAK

Atal honetan, jantokiko langileei buruzko beste kezka batzuk ere helarazi dizkigute:

- **Jantokia hezkuntza-eremutzat ez hartzea**
- **Ratioa**, batez ere haur eta lehen hezkuntzan. Hainbat elkartek eskatu dute begirale bakoitzak haur gutxiago artatzea
- Begiraleen **prestakuntzarik eza**, bereziki gatazkak konpontzeko
- Hainbat kasutan, jantokiko espazioan **euskara gutxi erabiltzea**
- Jantokiko arduradunak **denbora gutxi** du **familiak artatzeko** eta jantokiko langileekin **koordinatzeko**

Hona hemen adibide bat:

“Kezkatuta gaude ikasleak begiraleen arreta jasotzen duten orduak ez direlako benetan sartzen ikastetxeko hezkuntza-espazioaren eta -erritmoaren barruan. Familien zein ikastetxearen aldetik, defizita ikusten dugu begiraleentzako ikasle ratioei dagokienez (ikasle asko hezitzaile batentzat), begiraleen prestakuntza falta, jantokiko arduradunak jantokiko orduak behar bezala artatzeko denbora falta (begirale taldearen koordinazioa, jantokiko gorabeherak...)... Bestalde, arazoak ditugu zenbait monitorerekin arazo zehatzak konpontzeko (ikasleei arreta egokia emateari dagokionez). Gorabehera eta arazo horiek enpresa kontratatzaileari helarazi zaizkio, baina ez dago arazoaren benetako ebazpenik.”